DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

LEA

- Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardun esparruetan trebatzeko bekak 2
- Lehiaren arloko Compliance Programak finantzatzeko Dirulaguntzak 3

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardun esparruetan trebatzeko bekak

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 8koa, Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakariarena, zeinaren bidez publiko egiten baitira Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera-esparruko prestakuntza-beken oinarriak eta deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Oinarriak eta Deialdia 2025-2026 Esleipena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da beka bat ematea goi-mailako unibertsitate-titulua duen pertsona bati (graduduna, lizentziaduna edo titulazio baliokidea duena), baldin eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduketa-eremuetako gaietan osatu eta garatu nahi badute beren lanbide-heziketa, erakunde horren egoitzan prestakuntza-praktikak eginez, gehienez ere hamar hilabeteko epean

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Hamahiru eskaera jaso ziren eta beka bat esleitu zen 8 hilabete eta erdiko iraupenarekin 2114001000.1.61150.45100.2025/000457 aurrekontu-aplikazioan deialdi honetarako bideratutako kreditua 3.500 eurokoa izan zen 2025erako, eta 8.300 eurokoa 2026rako. Horietatik 2.052,36 euro egikaritu dira 2025ean, eta 8.145,76 euro exekutatuko dira 2026an, betiere beka esleitu zaion pertsona 2026ko uztailaren amaierara arte badago. LEA/AVCk egiaztatu du bekaduna ikasteko interes handia erakusten ari dela eta horren aprobetxamendua nabarmena izaten ari dela. Bete egin da 2025erako Dirulaguntzen Urteko Planean jasotako unibertsitate-tituludunak lehiaren arloan eta LEAren berezko eginkizunei dagokienez prestatzeko helburu estrategikoa. Era berean, lehiaren arloko prestakuntza-eskaera gero eta handiagoari erantzun zaio.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Prestakuntzako ordu kopurua (2026ko uztailaren 31ra arte)	1.200 ordu	1.140 ordu

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lehiaren arloko Compliance Programak finantzatzeko Dirulaguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 25ekoa, Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakariarena, lehiaren arloko Compliance programak finantzatzeko 2025eko dirulaguntzak arautzen dituena eta haietara deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Oinarriak eta deialdiak 2025 Esleipenak 2025

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da langile autonomoek eta ETEek lehiaren arloko Compliance-programak diseinatu eta lehen aldiz ezar ditzaten sustatzea edo lehiaren arloko compliance-azpiprograma espezifikoak, lehendik ezarrita dituzten ordenamendu juridikoko beste eremu material batzuekin lotutako Compliance-prometan txertatuko direnak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

4 eskaera jaso ziren eta 3 laguntza eman zitzaizkien 3 ETEri. 2114001000.1.61150.45001.2025/000457 aurrekontu-aplikazioan deialdi honetara bideratutako kreditua 20.000 eurokoa izan zen 2025erako, eta horietatik 17.107,30 euro gauzatu ziren. Neurri horren bidez, aurrera egiten da lehiaren kultura enpresa-eremuan areagotzeko eta zabaltzeko helburu estrategikoan, eta dirulaguntzak ematen dira lehiaren arloko Compliance -programak diseinatu eta ezartzeko, enpresei lehia-arauak betetzen laguntzeko eta merkatuen funtzionamendu lehiakorra bultzatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako dirulaguntzen kopurua	---	3
Onartutako konplimenduzko programen kopurua	---	3